

SECCION AMENA.

¡ZER BEGIYA!

Pintore batek, ¡eta ez gero
 Ustez guchi zekiyena,
 Erretratu bat egiñ zuben beñ
 Gitar jotzalle batena.
 Ari begira, bere bi lagun
 Zenbait jakintsu añian,
 Chancharik gabe leyatzen ziran
 Irudiaren gañian.
 Gelan sartu zan momentu artan
 Sei bat urteko umia,
 Mutill bizi bat, ikusi zanez
 Gitardunaren semia

Chunditurikan begiratubaz
 Arreta aundiz berari,
 Onela esan zuben mutillak:
 —¡Nere aitacho dá ori!
 Pintatzallea eta lagun bat
 Nola farrez asi ziran,
 Bestiak gogoz aurrari onla
 Galdetu ziyon segirán:
 —¿Aizak, Periko, esan biardek
 Oraiñ guztiyen aurrarian,
 ¿Zertanik aita ezagutu dek?
 —¿Zertan ¿zertan, ¡¡gitarrarian!!

*
 * *

GERTATUBA.

—Dimas, zer diabru dá
 Pasatzen zaizuna,
 Irukitzeko orren
 Kopeta illuna?
 ¡Onelakorik azko
 Ez nuben ez, uste.....
 ¿Aginduba ukatu
 Egiñ aldizute?
 Baña, oraiñ datorkit
 Gauza bat gogorá,
 ¿Gaur etziñan joateko
 Kochian kanpora?
 Bai, bai, eta uste det
 Zala Zarautza.....
 ¿Ori da zure pena
 Ez joana aruntza?

—Ez dá diyozunetan
 Orlakorik ezer,
 Isill zaitia eta
 Jakingo dezu zer.
 ¡Misteriyua alda
 Egotia estu!
 ¡Ez dirate bada ¡¡oh!!
 Erlejuba ostu?
 —¡Eta ori dalako
 Zaude orren charra?
 Ez altzera oroitzen
 Esaera zarra?
 ¿Nai dezu kontatzia
 Nola esaten dan?
 Ará; «Nola etorri
 Ala juañ Mari Juan.»

V. IRAOLA.

VI^{garren} MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA:

Tripak eta subak zenbat eman ainbat jan.

